

Euskal AEko enpresa berritzaileak %16,9 izan ziren 2003-2005 aldian

Teknologia-berrikuntzako jardueretarako gastu osoa 2.162 milioi eurokoa izan zen 2005ean; beraz, gastua %7,5 gehitu da eta BPGaren %3,8koa da

2003-2005 aldian, Euskal AEko enpresen %16,9 berritzaileak izan ziren, hau da, aurreko aldian baino %7,5 enpresa gehiago izan ziren berritzaileak. Enpresa berritzaileak hartzen dira merkatuan produktuen bat (ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produktuen bat sartu dutenak (%5,7), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%15,4), Eustaten datuen arabera.

Ehuneko horiek %33,3raino iristen dira, 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %14,3 izan dira, eta prozesua eraberritu dutenak %27,7 izan dira.

1. taula: Enpresa berritzaileak aldiaren arabera. (%)

	Guztira			10 langile edo gehiago		
	2003-2005	2002-2004	2001-2003	2003-2005	2002-2004	2001-2003
Euskal AE	16,9	16,8	16,5	33,3	31,9	32,1
Lurralde historikoa						
Araba	15,1	13,6	12,8	33,8	31,9	29,7
Bizkaia	17,6	17,5	16,0	32,4	30,1	30,9
Gipuzkoa	16,5	17,0	18,7	34,3	34,6	35,1

Iturria: Eustat

2003-2005 aldian, produktu-berrikuntzak negozio-zifra osoan duen eragin ekonomikoa %22,0koa da


Produktu berritzaileek negozio-zifra osoan duten batez besteko eragin ekonomikoa %22,0koa da produktua egiten duten enpresetan. Aldatu gabeko produktuen edo pixka bat aldatutakoen eragin ekonomikoa, ordea, gainerako %78,0koa da. Produktu-berrikuntza enpresarako izateaz gain merkatutako ere baldin bada, eragin ekonomikoa %14,8koa da.

10 langile edo gehiago dituzten enpresetan ehuneko horiek pixka bat aldatzen dira, eta produktu berrien edo pixka bat hobetuen batez besteko eragina %20,4koa da. Produktua merkatuan ere berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa %7,9 da.

Bestalde, 2005. urtean zehar, enpresek 2.162 milioi euroko gastua egin zuten teknologia sustatzeko jardueretan. Gastuaren zenbatekoa %7,5 igo da eta BPGaren %3,8koa da. Zenbateko hori berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+Grako eta makinak

eta ekipoak erosteko gastua (%38,4 bakoitzak), eta kanpoko I+Grako gastua, %13,5koa. Gainerako jardueretarako %9,7ko gastua geratzen da.

1. grafikoa: 2005. urteko berrikuntzarako gastuaren banaketa, jardueren arabera. (%)



Iturria: Eustat

Enpresa berritzaileen %27,9k finantzaketa publikoa jasotzen du. Ehuneko hori %46,6ra iristen da 10 langile edo gehiagoko enpresetan

Enpresa berritzaileen %27,9k nolabaiteko finantza-laguntza publikoa jasotzen du jarduera berritzaileetarako. Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %22,0rekin. Ehuneko hori gutxituz doa beste administrazio batzuen laguntzei dagokienez. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, %46,6k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, ehuneko gehien finantzatzen duena. Zehazki, laguntzen %36,4 finantzatzen du.

2. taula: Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, jatorriaren arabera. 2003-2005. (%)

Finantzaketa publikoa jasotzen dute hauetatik	Guztira	10 langile edo gehiago
	27,9	46,6
Tokiko administrazioak	3,3	5,1
Foru aldundiak	9,1	14,3
Eusko Jaurlaritza	22,0	36,4
Administrazio zentrala	4,9	14,7
Europar Batasuna	3,9	5,5

Iturria: Eustat

Berrikuntzarako lankidetzari dagokionez, esan beharra dago ia ez dagoela lankidetzarik establezimendu txikienetan. Soilik berrikuntzaren bat izan duten establezimenduen %3,4k sinatu du berrikuntza-jardueretako edo I+Gko lankidetzahitzarmenen bat.

Hala ere, berrikuntzaren bat izan duten 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan lankidetzak %20,0tan egon da. Tamaina horretako establezimenduetan, lankidetzak honako hauekin gertatu da: zentro teknologikoekin (%66,6); ekipoen, materialaren... hornitzaileekin (%41,5); enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (%34,5); eta Unibertsitate nahiz beste institutu batzuekin (%33,1).

Enpresen erdiak uste du faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela

Era berean, enpresen erdiak, %50,02k hain zuzen ere, uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak daudela. Faktore horien artean, berrikuntzen kostu handiegia (%41,1) eta gehiegizko arrisku ekonomikoak (%34,7) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 langile edo gehiagoko enpresen artean, ehuneko hori %64,5era iristen da, eta oztopo berak nabarmentzen dituzte.

3. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2003-2005. (%)

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	50,0	64,5
Faktore ekonomikoak:	44,3	54,9
- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	34,7	40,7
- Berrikuntzako kostu handiak	41,1	50,1
- Finantzaketa-iturririk ez	30,5	34,9
Barruko faktoreak:	31,7	45,6
- Erakundearen zorrotasunak	15,3	21,2
- Langile gaiturik ez	19,3	26,5
- Teknologiari buruzko informazioz ez	18,4	24,0
- Merkatuei buruzko informazioz ez	16,9	22,6
Beste faktore batzuk:	29,7	33,9
- Arauek malgutasun urria dute	18,3	21,9
- Bezeroek sentikortasunik ez	23,5	25,3

Iturria: Eustat

Azkenik, 2003-2005 aldian, aipatzekoa da enpresa berritzaileen %10,6k patenteren bat edo bestelako babeste-metodoren bat erabili duela asmakizunak edo berrikuntzak babesteko. Aldi horretan, enpresen %1,3k eskatu zuen patenteren bat bere establezimenduetan egindako asmakuntza edo berrikuntza babesteko, eta enpresen %1,5ek patenteren bat zuen indarrean 2005. urtearen amaieran Bestelako babes-metodoak dagokienez, enpresa berritzaileen %10,1ek horrelako metodoren bat erabili du aldi horretan. Metodo horien artean aipatzekoak dira modeloen erregistroa, fabrika-markak, egile-eskubideak etab.

Ehuneko horiek igo egiten dira 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak bakarrik hartzen badira kontuan. Zehazki, enpresa berritzaile horien %29,7k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du aldi horretan; %6,3k patenteren ba eskatu du; eta %8,5ek patenteren bat indarrean zuen 2005eko amaieran. Era berean, %26,5ek babesteko beste metodoren bat erabiltzen zuen.

Ohar metodologikoa: EUSTATEk egindako Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainako eta jardueraren edozein sektoretako (lehenengo sektorea izan ezik) Euskal AEko enpresei, herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei zuzentzen zaie. Inkestaren helburua, enpresek teknologia-berrikuntzarako gauzatzen dituzten jardueren buruzko informazioa ematea da. Inkestak, gainera, Euskal AEko 3.400 establezimenduko eredu-lagin bat hartzen du oinarri gisa

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tel.:+34-945-01 75 07 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es